

IRAKASKUNTZA-GIDA

2021/22

Ikastegia

231 - Psikologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25055 - Emozioa eta Gaitasun Sozioemozionalak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgaiaren eduki teorikoak (25 o): Programa teorikoaren eduki guztiak Aritzeta, Soroa, eta Etxabarria, (2013) liburuan biltzen dira. Power point gardenkien bitartez emango dira. Gardenkietako edukia OSATUGABEA denez, eskola magistraletara joan aurretik eduki horiek irakurtzea aholkatzen da, izan daitezkeen zalantzak ikasgelan argitu ahal izateko. Gardenkietako edukiak ezagutza barneratzen lagunduko duen euskarria bezala ulertu behar da eta ez zati teorikoa gainditzeko nahikoa den materiala bezala. Horregatik, zati teorikoa gainditzeko irakurgaiak ikastea aholkatzen da eta eskola magistraletan ematen diren adibideei eta azalpenei arreta jartzea eta ikastea.

Programa praktikoaren ia eduki guztiak Aritzeta, Soroa eta Etxabarria, (2013) liburuan biltzen dira. Ikasgelako praktikak (8 o): Praktikak tutoreak gidatutako ekintzak dira eta nahiz eta taldeka egingo diren "*" batekin markatuta daudenak bakarka egin daitezke ere. Gogoan izan ikasle bakoitzak praktika GUZTIAK egin beharko dituela eta bere PORTAFOLIOA (ikus dokumentu honen amaieran) propioa garatu beharko duela ebaluazio jarraitua nahi badu izan. Praktikak eduki teorikoekin dute lotura eta maila aplikatua izango dute inplikazioa. Ikasleekin adostuta hemen proposatzen diren praktikaz gain beste batzuk proposatu daitezke ere.

Tailerrak (21 o): Tailerrak ikasleak bere kabuz egin beharreko ekintzak dira oinarriko informazioarekin, baina "*" batekin markatuta daudenak tutorearen argibiderik gabe ezin dira egin. Gogoan izan ikasle bakoitzak tailer GUZTIAK egin beharko dituela eta bere PORTAFOLIOA propioa garatu beharko duela ebaluazio jarraitua nahi badu izan. Tailerrak eduki teorikoekin dute lotura eta maila aplikatua izango dute inplikazioa. Ikasleekin adostuta hemen proposatzen diren tailerretatik aparte beste batzuk proposatu daitezke ere.

Mintegiak (4 o): Mintegiak tutoreak gidatutako ekintzak dira hausnarketa eta eztabaida bidez eduki teoriko zein praktikoetan sakontzeko asmoarekin egiten direnak (ikus dokumentu honen amaieran). Nahiz eta taldeka egingo diren ikasle bakoitzari hausnartzea eta eztabaidatzea eskatuko zaio. Ikasle bakoitzak mintegi GUZTIAK egin beharko ditu eta bere PORTAFOLIOA propioa garatu beharko du ebaluazio jarraitua nahi badu izan.

Ordenagailu praktikak (2 o): Praktika hauek tutoreak gidatutako ekintzak izango dira eta software baten bidez ezagutza teoriko zein trebetasun praktikoetan sakontzeko helburua dute. Gogoan izan ikasle bakoitzak ordenagailuko praktika GUZTIAK egin beharko dituela eta bere PORTAFOLIOA propioa garatu beharko duela ebaluazio jarraitua izan nahi badu.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- 1) Emozioari buruzko oinarriko garapen teorikoak ezagutu eta lantzen diren edukiei buruzko hausnarketa kritikoa egin.
- 2) Emozioei buruzko funtsezko garapen teorikoak ezagutu eta egunerokotasunean emozioekin harremana duten arazoak identifikatu eta soluziobideak proposatu.
- 3) Komunikazio asertiboa eta afektiboaren oinarriak ezagutu, norberaren eta besteen helburuak integratuz.
- 4) Gaitasun sozioemozionalak trebetasun pertsonalekin lotzeko gaitasuna izan testuinguru ezberdinetan.
- 5) Gaitasun sozioemozional pertsonal eta pertsonarteakoen garapen maila aztertzeke eta erregulazio emozionalen portaerak identifikatzeko gaitasuna izan.
- 6) Irakasgaiaren landutako gaien buruzko txosten bat egin eta publikoki defendatzeko gaitasuna izan.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Gaia: Emozioei buruzko teoria nagusiak.
2. Gaia: Emozioaren oinarriko ezaugarriak
3. Gaia: Oinarriko emozioak: Sumina, Beldurra, Nazka, Poza, Tristura eta Sorpresa
4. Gaia: Emozio Sozialak
5. Gaia: Emozioen erregulazioa
6. Gaia: Adimen emozionala eta Gaitasun Sozioemozionalak
7. Gaia: Erregulazio emozionalaren eta entzuketa aktiboaren trebatzea eta aplikatzea.
8. Gaia: Gaitasun sozioemozionaletan ikerkuntza eta esku-hartzea

METODOLOGIA

Ebaluazioa modu presentzian edo semi-presentzian: Irakasgai hau 0-10 puntu bitarteko sistema baten bidez ebaluatzen da, zeinetatik 4,5 azterketa bitartez ebaluatuko diren; alegia, ezagutza teorikoak adierazteko test moduko froga bat burutuko da (partziala edo amaierakoa). Gainontzeko puntuak (5,5), ikaslearen gidan deskribatutako programa praktikoak barne hartzen dituen ekintza eta emaitzen ebaluaketa jarraituaren bitartez lortu ahalko dira.

Ikasle bakoitzak mintegiak, praktikak eta tailerretan eskatzen diren lanekin portafolio bat sortu beharko du. Portafolio hau 8 eta 14. asteetan jasoko da eta bertatik mintegi bat, praktika bat eta tailer bat edo bi ebaluatuko dira sakonki, 0-10 eskala batean. Beste ekintza guztiak ondo aurkeztu edo gaizki aurkeztuta bezala ebaluatuko dira. Gaizki entregatutako mintegi, praktika edo tailer bakoitzarengatik koefiziente bat emango da eta azkeneko kalifikazioa biderkatuko da koefiziente horrengatik. Horrela, mintegien kasuan 0,5 koefizientea izango du (2 mintegi dira), praktikak 0,2 (5 ekintza dira) eta tailerrak 0,1 (10 ekintza dira).

Adibidez, pentsa pertsona batek 9 bat lortu duela ebaluatutako tailerretan baina bi tailer gaizki entregatu dituela edo ez dituela egin, beraz $0,1 \cdot 2 = 0,2$, beraz $1 - 0,2 = 0,8$, beraz $9 \cdot 0,8 = 7,2$ ko kalifikazioa izango zuen tailerretan. Edo, pentsa, pertsona berak 10 bat lortu duela praktikan eta bat aurkeztu gabe duela, horrek $0,2 \cdot 1 = 0,2$ ematen digu, beraz $1 - 0,2 = 0,8$, beraz $10 \cdot 0,8 = 8$ ko kalifikazioa izango zuen praktikan. Mintegiren kasuan berdin.

Beste ebaluazio aukera bat, modu ez-presentzian edo urrunetik egin beharko balitz: Kasu honetan, irakasgaia hau modu ez presnetzian eman beharko balizt, orduan dena berdin mantenduko litzake vaina azterketaren 4,5 puntuak, azterketa formalaren bitartez lortu beharrean ebaluazioa egoera ez presentzialera egokituko litzateke EGela-Pi plataforma erabiliz.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	25	4	8		2		21		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	37,5	6	12		3		31,5		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 45

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontaktzen hasita.

DEIALDIARI UKO EGITEA

1. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.
2. Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.
3. Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

TEORIA

Behin betiko kalifikazioaren %45a. Galdera ikerkiko azterketa.

PRAKTIKAK, TAILLERAK, MINTEGIAK ETA ORDENAGAILU PRAKTIKAK

Behin betiko kalifikazioaren %55a. Praktiken kuadernoa eta mintegien bitartez egindako ebaluazio jarraitua.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

1. Irakasgaia ohiko deialdian gaitzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea

izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.
2.– Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.
3.– Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzok ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzok ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Gardenkien fotokopiak eta ikasturtean zehar emango diren beste materialak.
Irakasgaiaren eduki teorikoak (25 o): Programa teorikoaren eduki guztiak:

Aritzeta, A., Soroa, G., eta Etxabarria, I. (2013). Emozioak eta gaitasun sozioemozionalak. Bilbo:UEU.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Aritzeta, A., Soroa, G., eta Etxabarria, I. (2013). Emozioak eta gaitasun sozioemozionalak. Bilbo:UEU.
Aritzeta, A., Pizarro, M. eta Soroa, G. (2008). Emozioak eta Heziketa. Donostia:Erein.
Kalat, J. W. y Shiota, M. N. (2007). Emotion. CA: Thomson-Wadsworth.
Palmero, F. y Martínez Sánchez, F. (Coors.). (2008). Motivación y emoción. Madrid: McGraw-Hill.
Repetto, E. (2009). Formación en competencias socioemocionales (libro alumno). Madrid: La Muralla.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Acosta, A. (2007). Psicología de la emoción. Granada: Sider.
Aguado, L. (2010). Emoción, afecto y motivación. Un enfoque de procesos. Madrid: Alianza.
Carlson, J. G. y Hatfield, E. (1992). Psychology of emotion. Forth Worth, TX: Harcourt Brace Jovanovich.
Davidson, R. J., Scherer, K. R. y Goldsmith, H. H. (Eds.). (2003). Handbook of affective sciences. Oxford: Oxford University Press.
Ekman, P. y Davidson, R. J. (1994). The nature of emotion: Fundamental questions. Nueva York: Oxford University Press.
Evans, D. (2002). Emoción. Madrid: Taurus.
Fernández-Abascal, E. G., García, B., Jiménez, M. P., Martín, M. D. y Domínguez, F. J. (Coor.) (2010). Psicología de la emoción. Madrid: Centro de Estudios Ramón Areces.
Fernández-Berrocal, P y Ramos-Díaz, N. S. (2004). Desarrolla tu inteligencia emocional. Barcelona: Kairós.
Fischer, A. H. (Ed.) (2000). Gender and emotion: Social psychological perspectives. Cambridge: Cambridge University Press.
Garrido, I. (2000). Psicología de la emoción. Madrid: Síntesis.
Lewis, M., Haviland-Jones, J. M. y Feldman Barret, L. (Eds.) (2008). Handbook of emotions. Nueva York: The Guilford Press.
Mayor, M. (Ed.). Psicología de la emoción. Valencia: Promolibro.
Mestre, J. M. y Fernández-Berrocal, P. (Eds.) (2007). Manual de inteligencia emocional. Madrid: Pirámide.
Niedenthal, P. M., Krauth-Gruber, S. y Ric, F. (2006). Psychology of emotion. Interpersonal, experiential, and cognitive approaches. East Sussex: Psychology Press.
Oatley, K. y Jenkins, J. M. (2006). Understanding emotions. Oxford: Blackwell Publishers.
Palmero, F., Fernández-Abascal, E. G., Martínez, F. y Chóliz, M. (Coors.) (2002). Psicología de la motivación y la emoción. Madrid: McGraw-Hill.
Quirós, P. y Cabestrero, R. (2008). Funciones activadoras: principios básicos de la motivación y la emoción. Madrid: Centro de Estudios Ramón Areces.
Strongman, K. T. (2003). The psychology of emotion: from ev

Aldizkariak

PSICOTHEMA <http://www.psicothema.com/>
THE SPANISH JOURNAL OF PSYCHOLOGY <http://www.ucm.es/info/psi/docs/journal/>
ANSIEDAD Y ESTRÉS <http://www.ucm.es/info/seas/revista/>
ESTUDIOS DE PSICOLOGÍA <http://www.uam.es/estudiosdepsicologia>
REVISTA DE PSICOLOGÍA SOCIAL <http://www.fia.es>
REVISTA ESPAÑOLA DE MOTIVACIÓN Y EMOCIÓN <http://reme.uji.es/remesp.html>
COGNITION AND EMOTION <http://www.tandf.co.uk/journals/titles/02699931.asp>
EMOTION <http://www.apa.org/journals/emo/>
MOTIVATION AND EMOTION <http://www.springer.com>
JOURNAL OF PERSONALITY AND SOCIAL PSYCHOLOGY <http://www.apa.org/journals/psp>

Interneteko helbide interesgarriak

Asociación de Motivación y Emoción: <http://www.ame.com.es/>

International Society for Research on Emotion (ISRE): <http://isre.org/prd/>
American Psychological Association (APA): www.apa.org
Laboratorio de Emociones (sobre inteligencia emocional en castellano):
<http://campusvirtual.uma.es/intemo>
Emotional Inteligente Information: http://www.unh.edu/emotional_intelligence
The Emotion Home Page: <http://emotion.salk.edu/emotion.html>
Motivation and Emotion: <http://www.psywww.com/resource/bytopic/motiv.html>

OHARRAK

Ohar garrantzitsua: Gida hau 2020/2021eko irakaskuntza presentziala izango dela aurreikusiz egin da. "sars-cov-2" (covid-19) birusak sortutako pandemia egoeraren aldakortasuna ikusirik, irakaskuntza modu birtualean egin behar bada, egoera horretara egokitzeko, irakaskuntza taldeak berrantolatuko ditu eskola magistralak, eskola praktikoak eta baita ere irakasgaiaren ebaluazioa; 2019-20 ikasturteko bigarren lauhilekoan egin zen bezalaxe.

Ebaluazioa modu presentzialean edo semi-presentzialean: Irakasgai hau 0-10 puntu bitarteko sistema baten bidez ebaluatzen da, zeinetatik 4,5 azterketa bitartez ebaluatuko diren; alegia, ezagutza teorikoak adierazteko test moduko froga bat burutuko da (partziala edo amaierakoa). Gainontzeko puntuak (5,5), ikaslearen gidan deskribatutako programa praktikoak barne hartzen dituen ekintza eta emaitzen ebaluaketa jarraituaren bitartez lortu ahalko dira.

Beste ebaluazio aukera bat, modu ez-presentzialean edo urrunetik egin beharko balitz: Kasu honetan, irakasgaia hau modu ez presentzialean eman beharko balizt, orduan dena berdin mantenduko litzake vaina azterketaren 4,5 puntuak, azterketa formalaren bitartez lortu beharrean ebaluazioa egoera ez presentzialera egokituko litzateke EGela-Pi plataforma erabiliz.